# Astigarraga

Uŕengo astean egingo zaye azkena Miren-loreai; ez dakit nola ez diran joaten gizon geyago lore - jai oyetara. Umetxurien lore eskeintza baño eztiagorik bai aldaba?

Davi-ren eresi aintzagaŕiak, euzkel-abesti xamuŕak ta abar ez dute buruko miñik egiten, ŕitzitik arnasagaŕi goxoak dira.

—o—

Sagardo on asko dauzkagu txotxean; uŕegoŕizko edari oŕek lagun asko erakaŕi eta txin txin anitz utzi egiten du urian.

—o—

Eusko - Etxeko ezpatadantzariak txaloak irabazi dituzte. Pazko - Meza nagusi ondoren enparantz edeŕean egin zuten lenazkoa. Ez nuen uste uriak oŕen on artuko zuanik guziak ao batez txalotu zuten. Geroztik neska - mutil koskoŕei etzaye beste eresirik entzuten; badirudite eresi oyek Matusalenen aitonak abesten zituala.

—o—

Pazko bigaŕenez eguraztien sendiarekin nijuala, "ara an Gautxori idazle beŕia aldarnanekoarekin txutxurnutzuka" ¿ez aidienu zer esan beaŕ? ¡esi eŕosariyua galerazoko nieke.

Eta ¿Gautxori ementxetik esaten jilat ia abertzaletzen diozan biotza etzaik damutuko.

—o—

Gure auzoko "Centro Republicano" "esaten" duten etxera Radio deitzen zayon agure aundia sartu dute aundia bear dute aundia bear du izan otsa beintzat galanta ateratzen du; nekatx batak 1200 pesetako altxoŕaz erosi omendu, ori egia balitz eluke año txaŕa etxeratu.

—o—

Datoŕen igandean Meza - beŕia eskañiko du Beŕondo Kornell gure lagun eta abertzale maiteak, ez da esan beaŕik gure poza eskñu - mum egiteko, bere Ezpatadantzariak ere ba omen dituzu.

EL DIA

Txaden Zaya

25-V-1933